

G. ARESTIREN AZKEN AGURREAN.—Aresti zena oroitzean, honako gertakari hau maiz bururatzen zait. Hara: Gargrielen azken borondatea betetzeko, 1975eko ekainaren 7an bildu ginen Derioko hilerrian. Ehortze zibil haretan seglar haina elizgizon bazen, zeren gizonen arteko maitasun borondatetsuak ez bai du mugarik. Azken batean, Aresti berak zionez, bihotza ezkerraldean dugu eta bertako odola gorria da.

*Harri eta Herri* liburuan erakutsi zigun Arestik Zorrozako moilean esplotazioak ez zuela diskriminatzen hizkuntzarik; baina, hala ere, bere kezka maiz agertzen zuen, usterik mespretsuko lanak etorkinentzat gehiago zirela. Uste horrekin agertu zuen bere poema batean:

Hiltzen naizenean egonen da  
nire lauzaren gainean eskribu hau:  
*Hemen datza Gabriel Aresti Segurola. Goian bego.*  
*Pérez y López. Marmolistas. Derio.*

Baina hau da parabola. Gu, zibil parte non zen galdezka joan gintzaion marmolista deitura jatordun euskalduna zen. Gure poeta maitearen gorpua hobiratzean, adiskideok elkarri gure nahigabea eta dolumina agertzen genuen bitartean, lauza jartzen ari ziren igeltseroak elkarrekin euskaraz mintzo ziren.

J. S. M.